Zedula horiek hilabete biko epean luzatuko dira, aurretik eskabide idatzia aurkeztuta, eta finkaren kokalekuaren plano aurkeztuko da, gutxienez, 1:1.000 eskalan egongo dena.

Zedula eskatzen duenak udaleko zerbitzuek eska diezazkieten kokalekuari buruzko gainerako datuak aurkeztuko ditu.

2. Plangintzaren Araudiko 168.3 artikuluan adierazten diren zehaztapenei gainera, Zedulek bildu egin beharko dituzte ereduak aprobetxamendua eta baimen daitezkeen erabilera haztatzeko koefizienteak, eta, informazioa ematen den unean, hartuak diren hirigintzazko eskubideen gradua.

3. Zedularen egiaztatze-balioa bertan egon daitezkeen oker materialak edo egitekoak gero zuzentzearen kaltetan gabe ulertuko da, eta ez du, inoiz ere, unean-unean aplikagarria den legezko eta hirigintzazko antolamenduaren indarrez finkaren gainean erortzen diren eskubide eta betebeharrak aldatzerik izango.

BIGARREN KAPITULUA

ARTAPENA EGIN BEHARRA

LEHENENGO SEKZIOA

ARTAPENAREN BETEBEHAR OROKORRA

4.2.1. artikulua.—*Artatu beharra*

1. Eraikuntzen, norbanakoen ekimenezko urbanizazioen, lurren, lora-tegien, kartelen eta instalazioen jabeek haien segurtasuna, osasungarritasuna eta ornamendu publikoa bermatzeko egoeran artatu behar dituzte. Horretarako, beharrezkoak izan daitezkeen mantenimendu, konponketa edo birjarpenezko obrak egingo dituzte. Era berean, ingurugiroaren eta ondare arkitektonikoaren babesari eta hiri-birgaikuntzari buruzko arauak bete-zera behartuta daude.

2. Higiezin baten jabeari eskagarri zaion artapenaren betebeharrak arrunta berriazko legerian errentarientzat ezartzen diren betebeharrak eta esku-bideen kaltetan gabe ulertzen da.

TITULO CUARTO

INTERVENCION MUNICIPAL EN LA EDIFICACION
Y USO DEL SUELO

CAPITULO PRIMERO

INFORMACION URBANISTICA

Artículo 4.1.1.—*Publicidad del planeamiento*

El principio de publicidad del planeamiento se hace efectivo mediante los siguientes tipos de información urbanística:

1. Consulta directa del planeamiento.
2. Consulta urbanística.
3. Cédula urbanística.

Artículo 4.1.2.—*Consulta directa del planeamiento*

Toda persona tiene derecho a examinar por sí misma y gratuitamente la documentación integrante del Plan General y de los instrumentos de desarrollo del mismo en los lugares y con las condiciones de funcionamiento del servicio fijadas al efecto. Se facilitará al público la obtención de copias de los documentos del planeamiento vigente, en los plazos y, en su caso, con el costo que se determinen.

Artículo 4.1.3.—*Consulta urbanística*

Toda persona puede solicitar por escrito informe sobre el régimen urbanístico aplicable a una finca, Unidad de Ejecución o Sector, el cual deberá emitirse en el plazo de un mes por el órgano o servicio municipal determinado al efecto, debiendo expresar, en su caso, el aprovechamiento tipo y los coeficientes de ponderación de los usos autorizados aplicables al área de reparto en que se encuentre y el grado de adquisición de facultades urbanísticas al tiempo de facilitarse la información.

A la solicitud se deberá acompañar plano de emplazamiento de la finca con referencia a los planos a escala 1:1.000, como mínimo, del Plan General o bien la numeración o denominación oficial precisa del Área de Reparto, Unidad de Ejecución o sector objeto de consulta.

Los servicios municipales podrán requerir al solicitante cuantos otros datos de localización o antecedentes fuesen precisos para la información.

Artículo 4.1.4.—*Cédula urbanística*

1. La cédula urbanística es el documento acreditativo del régimen urbanístico aplicable a una finca, Unidad de Ejecución o Sector y de las demás circunstancias que concurren en los terrenos comprendidos en el término municipal.

Las cédulas se expedirán en el plazo de dos meses, previa solicitud escrita a la que se acompañará plano de emplazamiento de la finca a escala 1:1.000, como mínimo.

El solicitante de la cédula aportará cuantos otros datos de localización les sean requeridos por los servicios municipales.

2. Las cédulas contendrán, además de las especificaciones señaladas en el artículo 168.3 del Reglamento de Planeamiento, el aprovechamiento tipo y los coeficientes de ponderación de los usos autorizables en el área de reparto en que se encuentre la finca y el grado de adquisición de facultades urbanísticas, al tiempo de facilitarse la información.

3. El valor acreditativo de la cédula se entenderá sin perjuicio de la ulterior subsanación de los errores materiales o de hecho que contuviesen y en ningún caso podrá alterar los derechos y obligaciones que recaigan sobre la finca en virtud de la ordenación legal y urbanística aplicable en cada momento.

CAPITULO SEGUNDO

DEBER DE CONSERVACION

SECCIÓN PRIMERA

DEBER GENERAL DE CONSERVACIÓN

Artículo 4.2.1.—*Obligación de conservar*

1. Los propietarios de las edificaciones, urbanizaciones de iniciativa particular, terrenos, jardines, carteles e instalaciones deberán conservarlas en estado que garantice su seguridad, salubridad y ornato público, realizando, a tal fin, las obras de mantenimiento, reparación o reposición que resulten necesarias. Están sujetos igualmente al cumplimiento de las normas sobre protección del medio ambiente y patrimonio arquitectónico y rehabilitación urbana.

2. El deber normal de conservación exigible a la propiedad de un inmueble se entiende sin perjuicio de las obligaciones y derechos de los arrendatarios que se derivan de la legislación específica.

3. Jabeek artapena egiteko duten betebeharrak badu muga bat: obren kostuak edo ezaugarri teknikoek, higieztina konpontzeko beharrezkoak badira, honen aurria ekarriko balute, salbu eta babesaren edo artapenaren gai diren eraikinen kasuan, hauen araubidea Arau hauetan ezarritzen dena baita.

4.2.2. artikulua.—*Segurtasun, osasungarritasun eta ornamentuaren gutxienezko baldintzak*

Eraikuntzen artapena egin beharrak, gutxienez, honako eduki hau izango du:

1. Urbanizazioetan:

Lurzati bakoitzaren jabeak funtzionamendu egoera egokian eutsiko die zerbitzu-sareetako hartuneei.

Urbanizazio partikularretan, jabeen konturakoa izango da urbanizazioa osatzen duten elementu guztien artapena, urbanizazioa Udalari eman eta honek jasoketa egin artean. Gainera, jabe horien ardurakoa izango da multzorako zerbitzu erkidekoak diren lurren eta instalazioen mantenimendua, are jabetza pribatua irauten badute, baldin eta jabetza hori pertsona zehatz bati egozterik ez badago, bestela, pertsona hori izango baita mantenimendua egitera beharturik dagoena.

Udalaren jabetzak urbanizazioak, beren mantenimendua legez edo kontratu bidez hirigintzako artapen-erakundeei egotzita badago, urbanizazio partikularrekin parekatuta egongo dira.

2. Eraikuntzetan:

— Segurtasun baldintzak: Eraikuntzen itxurak eta gainaldeak ura eta hezetasuna ez igarotzeko itxiak izan beharko dira; egitura babestuta eduki beharko dute elementuen eta agente erasotzaileen eragin karruskagarriarik; fatxadetako eta gainaldeko estaldura-materialei erortzeko arriskurik ez izateko moduan eutsi beharko dizkiete. Era berean, istripuen kontrako babesgarriak izan beharko dituzte, hala nola, karelak, barandak eta itxitura egokiak. Instalazio elektrikoak eta igogailuetarako eta urerako jasotze-edo presio-motoreak, eta tximistorratzak eta, egonez gero, gas edo berokuntzako instalazioak segurtasun-baldintzetan egon beharko dira suaren eta istripuen kontra. Egoilerik ez duten eraikinen kasuan, itxita eta legez kontrako atzemateen aurka babesturik egon beharko dira.

— Osasungarritasun-baldintzak. Eutsi beharko zaie higieztineari esleitua duten erabilerarako gai, degradatu ez daitezen garbiketa egoeran, eta zerbitzu-sareen, osasunbide instalazioen, aireztapen eta argiztapen baldintzen egoera egokia zainduta. Horrez gainera, funtzionamendu egokian eutsi beharko dizkiete ke, partikula eta substantzia kaltegarrien jaulkipenak gutxitu eta kontrolatzeko elementuei.

— Ornamentuaren baldintzak: Fatxadei garbi eta ondo pintaturik eutsi beharko zaie. Estaldura eta inpostako elementua birjarri beharko dira hura txukuntzeko behar denean. Baldintza berberetan eutsiko zaizkie, egonez gero, lorategiei, altzariei eta hesiei, bai eta gainerako barrualdeko elementu partikularrei edo herri-bidetik ikusgarri diren itxiturei ere.

Debekatzen dira mota guztietako pintadak, edo kartel, idazkun, propaganda eta abarren instalazioa, ez badaude beren beregi baimenduta dagozkie Udal Ordenantzetan, eta, beti ere, udalaren lizentzia jasoko ondoren.

3. Hirikitzat sailkatutako dauden lurri sastrakarik eta hondakin gabe eutsi beharko zaie. Era berean, bi metro eta berrogeita hamar zentimetro (2,50 m) altuerako itxitura iraunkorrez hesituta egon beharko dira. Itxitura horrek itxura, kontsistentzia eta erresistentzia egokia izan beharko du, eta lerrokadura ofiziala inguratu. Lurraren azalerari tratamendu egokia eman beharko zaio istripuren arriskurik egon ez dadin.

Eraikitzeo lizentzia ematen ez den bitartean, hiri-lurzoru hauetan, Udal Agintaritzak izaera publikozko erabilerak (aparkalekua, pertsonentzako atsedena eta egonlekua, haurrentzako jolas eta astialdiko behin-behineko instalazio desmontagarriak) ezarri eta baimendu ahal izango ditu, behin-behinekoz eta haien jabeen baimenarekin. Erabilera edo instalazio horiek, norbanakoek ezarriak badira, eraitsi behar izango dira Udal Agintaritzak horrela erabakitzen duenean, kalte-ordainerako eskubiderik gabe, eta Jabetza-Erregistroan inskribatu beharko da jabeak onartutako behin-behineko baimena.

4. Urbanizakorretan eta urbanizaezinetan sailkatutako lurzoruei osasungarritasun eta ornamentu publikozko baldintza egokietan eutsi beharko zaie. Horretarako, jabea aldiari-aldiari garbitzera behartuta dago, bertan zaborrak, hondakinak, usain txarrak, ur geldiak edo animalia desiraezinak egon ez daitezen, eta behar bezala hesitu beharko ditu, beharrezkoa izanez gero.

5. Kartelak, argizko iragarkiak eta markesinak Udalak horretarako lizentzia ematen badu soilik jarri ahal izango dira. Lizentzia ematerakoan, kontutan izango dira Plan Orokorrean xedatzen diren debekuak eta mugapenak.

Elementu hauei guztiei nariadurarik gabe eutsi beharko zaie, herri-bidetik ikusgarri diren bitartean.

3. El deber normal de conservación de la propiedad tiene como límite la realización de aquellas obras cuyo coste o características técnicas determinarían la ruina del inmueble si fueran precisas para la reparación de éste, salvo en el caso de edificios objeto de protección o conservación, cuyo régimen es el establecido en estas Normas.

Artículo 4.2.2.—*Condiciones mínimas de seguridad, salubridad y ornato*

El deber de conservación de las edificaciones tendrá, como mínimo, el siguiente contenido:

1. En urbanizaciones:

El propietario de cada parcela mantendrá las acometidas a las redes de servicio en correcto estado de funcionamiento.

En urbanizaciones particulares correrá de cuenta de sus propietarios la conservación de todos los elementos integrantes de la urbanización, hasta tanto sea la misma entregada al Ayuntamiento y recepcionada por éste. Además, corresponderá a los mismos propietarios el mantenimiento de terrenos e instalaciones que sean de servicio común para el conjunto, aunque se mantenga su propiedad privada, siempre que la misma no pueda imputarse a persona concreta, en cuyo caso será ésta la obligada a su mantenimiento.

Las urbanizaciones de propiedad municipal, cuyo mantenimiento esté legal o contractualmente atribuido a las entidades urbanísticas de conservación, se equiparán a las urbanizaciones particulares.

2. En construcciones:

— Condiciones de seguridad: Las edificaciones deberán mantenerse con cerramientos y cubiertas estancos al paso del agua y la humedad; contar con protección de su estructura frente a la acción corrosiva de los elementos y de los agentes agresores; conservar los materiales de revestimiento de fachadas y cobertura de modo que no ofrezcan riesgo de caída. También deberán contar con protección contra accidentes mediante antepechos, barandillas y cerramientos adecuados. Las instalaciones eléctricas y motores de elevación o presión para ascensores y agua así como el pararrayos y las instalaciones de gas o calefacción, si las hubiere, deberán mantenerse en condiciones de seguridad contra el fuego y accidentes. En el caso de edificios sin ocupantes, deberán quedar cerrados y preservados contra ocupaciones ilegales.

— Condiciones de salubridad: Se deberá mantener la aptitud de los inmuebles para el uso al que están destinados en condiciones de limpieza que impidan su degradación y preservando el buen estado de las redes de servicio, instalaciones sanitarias, condiciones de ventilación e iluminación. Además deberán conservar en buen funcionamiento los elementos de reducción y control de emisiones de humos, partículas y sustancias nocivas.

— Condiciones de ornato: Se deberán mantener las fachadas limpias y bien pintadas, reponiendo los materiales de revestimiento e imposta cuando sea preciso para adecuarla. En iguales condiciones se mantendrán los jardines, mobiliario y vallado, si los hubiere, y los demás elementos privados en el interior o cerramientos visibles desde la vía pública.

Se prohíbe todo tipo de pintadas, instalación de carteles, letreros, propaganda, etc., que no esté expresamente autorizada por las ordenanzas municipales correspondientes previa licencia municipal.

3. Los terrenos con destino urbano deberán mantenerse limpios de vegetación y restos de inmundicias, vallados con cerramiento permanente de dos metros y cincuenta centímetros (2,50 metros) de altura, de adecuada presencia, consistencia y resistencia, cercando la alineación oficial. Deberá propiciarse el adecuado tratamiento de la superficie del terreno para evitar riesgo de accidentes.

Hasta que se otorgue licencia de edificación, en estos terrenos urbanos la Autoridad Municipal podrá implantar y autorizar, con carácter provisional y autorización de sus propietarios, usos de carácter público (aparcamiento, descanso y estancia de personas, recreo para la infancia y esparcimiento con instalaciones provisionales de carácter desmontable). Tales usos o instalaciones, en el caso de que fueran implantados por los particulares, habrán de demolerse cuando lo acordara la Autoridad municipal, sin derecho a indemnización, debiendo inscribirse en el Registro de la Propiedad la autorización provisional aceptada por el propietario.

4. Los terrenos sin destino urbano (suelo no urbanizable) deberán conservarse en las condiciones de salubridad y ornato públicos adecuados al mismo. A tal fin, el propietario tiene la obligación de limpiarlos periódicamente de forma que se evite la existencia de basuras, desperdicios, malos olores, aguas estancadas o animales indeseables, y vallarlos correctamente, si fuere necesario.

5. Los carteles, anuncios luminosos y marquesinas sólo se podrán emplazar, previa licencia municipal, teniendo en cuenta las prohibiciones y limitaciones determinadas por el Plan.

Todos estos elementos deberán ser mantenidos sin deterioro en tanto permanezcan visibles desde la vía pública.

4.2.3. artikulua.—Eraikuntzetako obrak inguruneari egokitu beharra

1. Eraikuntzak kokatzen direneko ingurunerako egokiak diren ornametuzko baldintzetan egin eta mantendu beharko dira.

2. Udalak, horretara ezker, ukatu ahal izango du eraikinen fatxadetan elementu ikusgarriak jartzeko lizentzia, baldin eta elementu horiek haien kanpoaldeko itxura hutsalduek ezaintzen badute edo, estetika aldeetik, ingurunera ezegokiak badira. Era berean, arrazoi berberengatik, dauden eraistea eta higiezina bere hasierako egoerara lehengoratzeari eskatu ahal izango du.

4.2.4. artikulua.—Burutzapen aginduak eta artapena egin beharraren muga

1. Udal Agintaritzak ofizioz nahiz edozein interesatuk eskatuta aginduko du, lurren, urbanizazio partikularrek eta eraikuntzen jabeek artatu beharra betetzeko, behar izan daitezen obrak burutzapena.

2. Burutzapen agindua betetzen ez bada, legez aurreikusita dauden zehapenak ezarriko dira, eta udalak egingo du burutzapen subsidiarioa, jabearen pentzuan.

3. Hala ere, burutzapen aginduak artatzeko betebeharraren muga gainditzen badu, jabeak eskubidea izango du konponketa-gaiztatu hori agindu duen Administrazioak artapenaren betebeharra gainditzen duen kostuaren zatia finantzatu edo bere gain har dezan.

BIGARREN SEKZIOA

ERAIKUNTZEN AURRIZKO EGOERA

4.2.5. artikulua.—Aurri adierazpenaren bidezotasuna

1. Eraikuntzen aurrizko egoeraren adierazpena bidezkoa izango da legez ezarrita dauden egoeretan.

2. Eraikin batek konpon ezaina den kaltea duela ulertuko da baldin eta behar dituen konponketek egiturazko elementu guztien herena (1/3) berre-raikitzea inplikatzeko badute. Egiturazkoak dira egituraren kalkuluan eusteko eta jasateko eginkizuna ematen zaien elementuak.

Lehen ezarritako muga ateratzeko, honako prozedura honi jarraituko zaio:

a) Egiturazko elementuen zerrenda xehekatua egingo da, unitate metrikoetan hainbatuta, eta elementu horiek egiturazko elementu guztiekiko gordetzen duten proportzionaltasuna kalkulatu da ehuneko hainbestetan.

b) Ehuneko hainbestetan, berebat, finkatuko da elementuetako bakoitzerako berreraikia izan behar den proportzioa.

c) Portzentaje horiek, a) atalean lortutakoez biderkatu eta batu ondoren, eskainiko dute gaitzen zabalera osotasunaren aldean.

3. Konponketa obrak izango dira eraikina segurtasun eta osasun-garritasun baldintzetara lehengoratzeko balioko dutenak.

Konponketaren kostua unitateko eta banakatutako prezioak erabiliz zehaztuko da.

Eraikinaren gaurko balioa (V_a), honako formula hau aplikatuz gero aterako da:

$$V_a = V_r \times C_e \times C_u$$

Bertan:

V_r = Delarik lehengoratzeko balioa, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren moduluen arabera kalkulatu dena.

C_e = Adinaren arabera baliogaleraren koefizientea, honako koadro honen arabera kalkulatu dena:

Urteak	C_e
10etaraino	1,00
10etik 20raino	0,94
20tik 30eraino	0,87
30etik 40raino	0,81
40tik 50eraino	0,74
50etik 60raino	0,68
60tik 70eraino	0,62
70etik 80raino	0,55
80tik 90eraino	0,49
90etik 100eraino	0,42
100etik gora	0,36

C_u = Erabileragatiko baliogaleraren koefizientea, eraikinak, bere eraikuntzaren kalitatearen arabera, agertzen duen artapen egoera kontuan izanik zehaztuko dena.

Artículo 4.2.3.—Adecuación al ambiente de las obras sobre edificaciones

1. Las edificaciones deberán construirse y mantenerse en condiciones ornamentales adecuadas al ambiente donde se ubiquen.

2. El Ayuntamiento denegará, llegado el caso, licencia para la instalación de elementos visibles en las fachadas de los edificios si desvirtuasen o afearan el aspecto exterior de éstas o vinieran a resultar estéticamente inadecuadas al entorno circundante, pudiendo exigir por las mismas razones la demolición de las ya existentes y la restitución del inmueble a su aspecto originario.

Artículo 4.2.4.—Ordenes de ejecución y límite del deber de conservación

1. La Autoridad municipal ordenará, de oficio o a instancia de cualquier interesado, la ejecución de las obras necesarias para el cumplimiento del deber de conservación por sus propietarios de terrenos, urbanizaciones particulares y edificaciones.

2. El incumplimiento de la orden de ejecución dará lugar a la imposición de las sanciones legalmente previstas y a la ejecución municipal subsidiaria, a costa del propietario, o a la expropiación con carácter sancionador del inmueble en los términos autorizados por la legislación vigente.

3. No obstante, cuando la orden de ejecución excediera del límite del deber normal de conservación, por tratarse de elementos protegidos, el propietario tendrá derecho a que la Administración ordenante de dicho exceso de reparación, financie o asuma aquella parte del coste que supere el deber de conservación.

SECCIÓN SEGUNDA

ESTADO RUINOSO DE LAS EDIFICACIONES

Artículo 4.2.5.—Procedencia de la declaración de ruina

1. Procederá la declaración del estado ruinoso de las edificaciones en los supuestos previstos legalmente.

2. Se considera daño no reparable técnicamente por los medios normales aquel cuya reparación implique una reconstrucción de elementos estructurales en extensión superior a un tercio (1/3) de la totalidad de los mismos. Son elementos estructurales los que tienen una misión portante y resistente reconocida como tal en el cálculo estructural.

Para la obtención del límite antes establecido se seguirá el siguiente procedimiento:

a) Se establecerá una relación pormenorizada de los elementos estructurales que se cuantificará en las unidades métricas habituales, calculándose su proporcionalidad en relación al conjunto de los elementos estructurales en forma de tantos por ciento.

b) Así mismo en forma porcentual, se fijará para cada uno de los elementos la proporción que deba ser reconstruida.

c) Estos porcentajes, multiplicados por los obtenidos en el apartado a) y sumados, darán la extensión de los daños respecto de la totalidad.

3. Obras de reparación son aquellas que reponen el edificio a sus condiciones preexistentes de seguridad y salubridad.

El coste de reparación se determinará por aplicación de precios unitarios y descompuestos.

El valor actual del edificio (V_a) se obtendrá por aplicación de la siguiente fórmula:

$$V_a = V_r \times C_e \times C_u$$

Siendo:

V_r = El valor de reposición, que calculará según los módulos del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

C_e = Coeficiente de depreciación por edad, que se calculará con arreglo al siguiente cuadro:

Años	C_e
Hasta 10	1,00
De 10 a 20	0,94
De 20 a 30	0,87
De 30 a 40	0,81
De 40 a 50	0,74
De 50 a 60	0,68
De 60 a 70	0,62
De 70 a 80	0,55
De 80 a 90	0,49
De 90 a 100	0,42
Más de 100	0,36

C_u = Coeficiente de depreciación por uso, que se determinará teniendo en cuenta el estado de conservación del edificio en relación con su calidad constructiva.

4. Hamaikagarren tituluan ezarri diren babes bereziko araubideren baten menpean dauden eraikinei ez zaie baliozalerarik ezarriko, ez adinagatik, ez erabileragatik.

5. Patioen dimentsioei, gelen aireztapenari eta, oro har, legeria espe-zifikoa eskatzen diren instalazioak ez edukitzeari buruzko akatsak ez dira kontutan hartuko, akats horiek higiezinaren bizigaitasunari baitagozkio, ez, ordea, bere aurritzko egoerari.

6. Behin-behineko irtenarazpenak eta higiezinaren bizigaitasunari buruz har daitezen neurriek ez dute, berenez eta beste barik, aurritzko ego-eraren adierazpena ekarriko.

4.2.6. artikulua.—Kalifikatutako eta Inbentariatutako Kultur Ondasun-en Aurria

Kalifikatutako eta Inbentariatutako Kultur Ondasunen aurri adierazpena Euskadiko Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezartzen denari ego-kituko zaio.

HIRUGARREN KAPITULUA HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK

4.3.1. artikulua.—Lizentzia behar duten egintzak

1. Eraikintzako egintza guztiak udalaren manuzko lizentzia behar dute. Udalaren aurretiazko lizentzia beharko dute, derrigorrez, aplikagarria den hirigintzako legerian ezarri diren egintza guztiak eta. zehatzago, Hirigintzako Disziplinari buruzko Araudiaren 1. artikuluko zerrendan azaltzen direnek.

2. Aurretiazko lizentzia behar izatea Planaren lurralde esparruan egin-go diren eta aurreko paragrafoan adierazi diren egintza guztietarako da, horiek sustatuko dituzten pertsonen izaera publikoa edo pribatua gora-behe-
ra, edo horiek atzemateko lur edo higiezinak herri jabaritzak edo jabetza-koak izatea, baita itsasoko eta lehorreko eta portuaren aldean ere, eta ber-
din da egintza horrek Administrazioaren beste organo baten baimena, lizentzia edo emakida behar izatea.

4.3.2. artikulua.—Emakidarako eskumenak

Alkatearen eskumena izango da hirigintzako lizentzia horiek ematea edo ukatzea.

BOSGARREN TITULUA ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA

LEHEN KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

5.1.1. artikulua.—Egoerak Eraikuntzaren Araubidean

Plangintzari buruzko Araudiaren 19.3. artikuluan ezarri dena betez, Plan Orokor honek proposatu duen antolamendua indarrean jarri aurretik egon dauden eraikin, instalazio eta erabilerei dagokienean aplikagarria den eraikuntzaren araubidea zehaztu da.

Ondore horretarako, Eraikuntzaren Araubidean ondoko egoera hauek aurreikusi dira:

- Antolamendutik Kanpo.
- Jasaten dena edo toleratua.
- Antolamenduaren Barruan.

BIGARREN KAPITULUA ANTOLAMENDUTIK KANPO

5.2.1. artikulua.—Definizioa

1. Antolamendutik Kanpoko egoeran sartzen dira Plan Orokor honek baino lehenago eginak diren eraikinak, erabilerak eta instalazioak, baldin eta Arau Subsidiarioekin bat etorri ez eta beren beregi grafiaturik ager-
tzen badira Hiri Antolamendua-Diseinuari dagozkion planoetan.

Eraikin horiek Lurzoruari buruzko Legearen 60.2. artikuluan ezarri den araupeketari lotuta egongo dira, herri jabaritzak zein neurritan atzematen duten kontuan hartu gabe.

2. Eraikinetan beren zati edo elementuren bat bakarrik aurkitzen bada berariazko antolamendutik kanpo, teknikoki gainerako eraikinetik bereiz dai-
tekeelako, antolamenduz kanpoko egoeraren araubidea bakarrik aplikatuko zaie zati edo elementu horiei, ez, ordea, gainerako eraikinari.

3. Antolamendutik kanpoko egoera ez zaie aplikatzen Plan Oroko-
raren babesaren araubidean biltzen dituzten higiezienei, eta kasu honetan eraikuntza antolamenduarekin bat datorrela ulertuko da.

4. Los edificios sometidos a algún régimen de protección especial según se recoge en el título undécimo, no se depreciarán ni por edad ni por uso.

5. Las deficiencias referentes a las dimensiones de los patios, ven-tilación de habitaciones y, en general, a la carencia de instalaciones exi-gidas por la legislación específica, no serán tenidas en cuenta por hacer referencia a las condiciones de habitabilidad del inmueble y no a su esta-do ruinoso.

6. El desalojo provisional y las medidas a adoptar respecto a la habi-tabilidad del inmueble no llevarán implícitas por sí solas la declaración de ruina.

Artículo 4.2.6.—Ruina de Bienes Culturales Calificados e Inventariados

La declaración de ruina de los Bienes Culturales Calificados e Inven-tariados, se adecuará a lo establecido en la Ley 7/1990, de Patrimonio Cul-tural Vasco.

CAPITULO TERCERO LICENCIAS URBANISTICAS

Artículo 4.3.1.—Actos sujetos a licencia

1. Todo acto de edificación requiere la preceptiva licencia munici-pal. Se hallarán sujetos a la obligación de obtener previa licencia del Ayun-tamiento la realización de los actos que enumera la legislación urbanística aplicable y, en concreto, los enumerados en el artículo 1.º del Reglamen-to de Disciplina Urbanística.

2. La sujeción previa a licencia rige sin excepción para todas las acti-vidades relacionadas en el apartado anterior que se realicen en el ámbi-to territorial del Plan, con independencia del carácter público o privado de las personas que las promuevan o de que los terrenos o inmuebles que las soporten pertenezcan al dominio o patrimonio público, incluso en la zona marítimo-terrestre y portuaria, y aunque el acto de que se trate exija auto-rización, licencia o concesión de otro órgano de la Administración.

Artículo 4.3.2.—Competencia para su otorgamiento

Corresponderá al Alcalde el otorgamiento o denegación de toda cla-se de licencias urbanísticas.

TITULO QUINTO REGIMEN DE LA EDIFICACION

CAPITULO PRIMERO DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 5.1.1.—Situaciones en el Régimen de la Edificación

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 19.3 de Reglamento de Planeamiento se define el régimen de edificación aplicable a las edifica-ciones, instalaciones y usos existentes con anterioridad a la ordenación pro-puesta por el presente Plan General.

A estos efectos se distinguen las siguientes situaciones en el Régi-men de la Edificación:

- Fuera de Ordenación.
- Tolerada.
- Dentro de Ordenación.

CAPITULO SEGUNDO FUERA DE ORDENACION

Artículo 5.2.1.—Definición

1. Se incluyen en la situación de Fuera de Ordenación los edificios, usos e instalaciones, erigidos con anterioridad al presente Plan General, que resultando disconformes con el mismo aparecen expresamente gra-ficiados en los planos de «Ordenación - Diseño urbano».

Dichos edificios estarán sujetos a la regulación del artículo 60.2 de la Ley del Suelo, independientemente de que invadan en mayor o menor medida espacio público.

2. Los edificios en los que únicamente se encuentre en situación de fuera de ordenación alguna parte o elemento del mismo, por ser técnicamente separable del resto de la edificación, el régimen de fuera de orde-nación solo será aplicable a aquella parte o aquellos elementos y no al resto de la edificación.

3. La situación de fuera de ordenación no es de aplicación a los inmue-bles incluidos por el Plan General en el régimen de protección, conside-rándose, en este caso, la edificación adecuada con la ordenación.

HIRUGARREN KAPITULUA
EGOERA TOLERATUA

5.3.1. artikulua.—Definizioa

1. Egoera toleratuaren barruan egongo dira aurreko bi kapitulueta araupetzen diren egoeretik ezeinetan bilduta ez egoteagatik, dokumentazio grafikoan beren beregi adierazita agertu ez baina, erabilera, lerrokadura, altuera edo aprobetxamendua dela-eta, Plan Orokorreza ez egokitzeko zertzeladaren bat agertzen duten eraikinak, erabilera eta instalazioak.

2. Egoera honetan biltzen dira honako izakizun hauetakoren batean aurkitzen diren eraikinak eta instalazioak:

a) Edozein lurzoru-motatan kokaturik egonda, beren kanpoaldeko lerrokadurak Planean, erabilera publikorako destinatzen dituzten guneei dago-kienz, esaterako, plazei, bideei eta abarrei dago-kienz, xedatzen diren etara egokituak ez dituztenak.

b) Edozein lurzoru-motatan kokaturik egon eta Planean beren beregi debekatzen diren erabilera destinatuturik daudenak.

c) Etxaldeko patioen barrualdean oso-osorik kokaturik dauden eraikinak, baldin eta eraikuntzak ez badu patio horiek okupatzerik antolamenduaren baldintzei atxikiz.

d) Egoera toleratu geroratu egongo dira garapenerako plangintzaren esparruetan kokatuko diren eraikin guztiak.

5.3.2. artikulua.—Egoera toleratuan onartzen diren obrak eta erabilera

1. Egoera honetan sartuta dauden eraikinetan baimendu ahal izango dira mota guztietako artapen, ornamentu, sendotze, konponketa eta eraberrikuntza obrak, baldin eta hirigintzako araubide aplikagarriarekiko desgokitasun fisikoaren arrazoien ondorioz ez bada.

2. Beraz, eraikuntza antolamenduaren barruan dagoela jo ahal izango da, bere iraupen baliakorra amaitu edo borondatezko ordezpenera gertatu artean. Ordezpena gertatzen bada, eraikuntza berria plangintzan aurreikusten diren eraikuntza, erabilera, altueren araubide eta abarren baldintza guztietara egokitu beharko da.

3. Araubide honen barruan dauden eraikinetan baimena emango da higiezina egon dagoen erabilera arabera erabiltzeko, harik eta erabilera hori aldatu arte, eraikina borondatez ordeztu arte edo hori erabat birgaitu arte.

4. Honen aurreko 2.c idatz-zatian adierazi diren instalazioetan zilegi izango da egon dagoen erabilera mantentzea jarduera eten arte. Egoitzako erabilera duen etxadi baten osorik kokatuta eta egoera toleratuan dagoen eraikin baten erabilera aldatzea, hala osoa nola zati batekoa izan, ondoko erabilera hauen arabera egingo da:

- Ekipamendua (3. erabilera).
- Ekoizpenezkoa (7. erabilera).

5. Lerrokaduren barruan dauden eraikinetan egon eta Plan Orokorrekin bat ez datozen erabilera jarraitu ahal izango dira beren amaiera gertatu artean. Horrelako kasuetan zilegi da erabilera aldaketa beti ere eraikinaren aldakuntza osoa gertatzen bada eta baldin eta erabilera aldaketa horrek Planean ezarri den araubideari egokitzea ekartzen bada.

6. Lerrokaduren barruko egoera honetako eraikin batean, plangintzarekin bat ez datorren erabilera baten aldaketa partzial bat proposatzen bada eta ezinezkoa bada aurreko idatz-zatian adierazi denaren ildotik, erabilera berriek erabilera baimenduen eta osagarrien araubide orokorra errespetatu beharko dute, zein aldetan aurkitzen den, eta alde honetan dauden gainerako erabilerekiko bateragarritasuna ere errespetatu. Hau gora-behera, 4. idatz-zatian ezarri diren erabilera tolerantziak aplikatuko dira.

7. Seigarren ataleko baldintzetan, erabilera berriak errespetatzen ez badu erabilera baimenduen eta osagarrien araubide orokorra, baina, ordeza, udalaren iritziz arrazoituaren arabera, dagoen egoerarekiko bateragarritasun hobea agertzen bada, erabilera hori baimendu egin ahal izango da, baldin eta eskatzaileak frogatzen bada ez dagoela bateraezintasunik eskatzen den erabilera berriaren eta eraikinetan dauden beste guztien eta bakoitzaren artean, eta, gainera, erabilera aldaketarekin batera, funtzionamendurako behar diren neurri zuzentzaile guztiak gaineratzen baditu, are, beharrezkoa bada, eraikineko elementu erkideetan ere. Hau guztia gora-behera, Udalak, Ordenantza baten bidez, baimen daitezkeen erabilera bateragarritasunaren araubidea ezarriko du.

LAUGARREN KAPITULUA
ANTOLAMENDUAREN BARRUAN

5.4.1. artikulua.—Definizioa

Antolamenduaren barrukotzat joko dira aurreko kapitulueta araupetzen diren egoeretik ezeinetan ez dauden eraikuntzak eta instalazioak, baldin eta Plan Orokor honekin bat badatoz, bai erabilera araupetzen dituzten Arauak, bai altuera, aprobetxamendu eta lerrokadurei buruzko oinarriko parametroak betetzen dituztelako.

CAPITULO TERCERO
SITUACION TOLERADA

Artículo 5.3.1.—Definición

1. Se consideran dentro de la situación tolerada los edificios, usos e instalaciones que por no hallarse comprendidos en ninguna de las situaciones reguladas en el capítulo anterior, no aparecen expresamente reseñados en la documentación gráfica (planos de «Régimen de la edificación»), pero sin embargo mantienen alguna circunstancia de inadecuación al Plan por razón de uso, alineación, altura o aprovechamiento.

2. Se incluyen en este situación los edificios, usos e instalaciones que se encuentran en alguno de los supuestos siguientes:

a) Los emplazados en cualquier clase de suelo cuyas alineaciones exteriores no se adaptan a las previstas por el Plan en relación a los espacios destinados al uso público, tales como plazas, viales, etc.

b) Los emplazados en cualquier clase de suelo, cuyo uso se encuentra expresamente prohibido por el Plan.

c) Las instalaciones de planta baja y los edificios ubicados íntegramente en el interior de los patios de manzana, cuando dichos patios no pueden ser ocupados por la edificación según las condiciones de ordenación.

d) Tendrán la consideración de tolerados diferidos aquellos edificios que se ubiquen dentro de áreas de planeamiento de desarrollo.

Artículo 5.3.2.—Obras y usos admitidos en situación tolerada

1. En los edificios incluidos en esta situación se podrán autorizar todo tipo de obras de conservación y ornato, de consolidación, de reparación y de reforma, siempre que no se acentúen las causas de inadecuación física al régimen urbanístico aplicable.

2. Por tanto, la construcción podrá considerarse dentro de ordenación hasta el momento en que concluya su vida útil o se produzca la sustitución voluntaria, en cuyo caso la nueva construcción deberá adaptarse a todas las condiciones de edificación, uso, régimen de alturas, etc. previstas en el planeamiento.

3. En los edificios incluidos en este régimen se permitirá la utilización del inmueble conforme al uso existente hasta que se produzca un cambio de éste, la sustitución voluntaria del edificio o la rehabilitación total del mismo.

4. A las instalaciones señaladas en el apartado 2.c) del artículo anterior se les permite mantener el uso existente hasta el cese de la actividad. Todo cambio de uso, total o parcial, que se realice en un edificio en situación tolerada, situado íntegramente en el interior de un patio de manzana de uso residencial, deberá adecuarse a los usos siguientes:

- Equipamiento (uso 3).
- Productivo (uso 7).

5. A los usos disconformes con el Plan General, existentes en edificios que se encuentran dentro de alineaciones, se les permite su continuidad hasta el cese de los mismos. En este supuesto, se admite el cambio de uso siempre que se efectúe una transformación íntegra del edificio y que dicho cambio de uso conlleve la adaptación al régimen establecido por el Plan.

6. Cuando se plantee un cambio parcial de un uso disconforme en un edificio considerado dentro de alineaciones y no sea posible actuar conforme al apartado anterior, los nuevos usos deberán respetar el régimen general de usos permitidos y complementarios según la zona en que se encuentre el edificio, así como la compatibilidad con el resto de usos existentes en éste. En todo caso, serán de aplicación las mismas tolerancias de usos establecidas en el apartado 4.

7. Cuando en las condiciones del apartado sexto, el nuevo uso no respete el régimen general de usos permitidos y complementarios, pero sin embargo represente, a juicio municipal razonado, una mejor compatibilización respecto a la situación existente, podrá ser autorizado siempre que el solicitante acredite que no hay incompatibilidad entre el nuevo uso solicitado y todos y cada uno de los existentes en el edificio y, así mismo incorpore, junto con el cambio de uso, todas las medidas correctoras precisas para su funcionamiento, incluso, si fuera necesario, en los elementos comunes del edificio. No obstante, el Ayuntamiento establecerá, mediante Ordenanza, el régimen de compatibilidades entre usos que pueden autorizarse.

CAPITULO CUARTO
DENTRO DE ORDENACION

Artículo 5.4.1.—Definición

Se consideran dentro de ordenación aquellas construcciones e instalaciones que no están en ninguna de las situaciones reguladas en los capítulos precedentes y se encuentran en consonancia con el presente Plan por cumplir tanto con las Normas reguladoras de usos como con los parámetros básicos de altura, aprovechamiento y alineaciones.

SEIGARREN TITULUA
ERABILERAK ERREGULATZEN DITUZTEN ARAUAK

LEHEN KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

6.1.1. artikulua.—*Xedea*

Titulu honetan ematen diren hirigintzazko erabilerei buruzko arauak antolatu eta kontrolatu nahi dituzte lurren zoruarean, zoruaren eta lurgainaren destinoa, bertan egun dauden nahiz geroan ezarri edo alda daitezten instalazio eta eraikuntzena, eta instalazio eta eraikuntza horietan gara daitezten jarduerak, lurzoruaren mota dena dela.

6.1.2. artikulua.—*Aplikazioa*

1. Erabilera araupezen dituzten manuak ez ezik, Eraikuntzari buruzko Arau Orokorrak ere bete beharko dira, bai eta, egonez gero, lurzoruaren, eraikinaren edo instalazioaren kokalekuaren arabera, bidezko diren Aldeko Ordenantzak ere.

2. Plan honek babesten dituen eraikin eta multzoei dagokienean, baldin eta horien araupeketa zehatza Arau hauen hamaikagarren tituluan adierazi den araupeketa zehatzari lotuta badago, hark izango du lehentasuna honako titulu honen gainetik.

BIGARREN KAPITULUA
ERABILEREN ETA DEFINIZIOEN
EGITURAKETA

6.2.1. artikulua.—*Erabileren egituraketa*

Honako erabilera-mota hauek ezartzen dira:

1. Lurraldean kokatu ahal izateko aukerari begira:

- a) Erabilera baimenduak:
— Bereizgarria edo nagusia.
— Toleratuak.

b) Erabilera debekatuak.

2. Jarduerak ingurunean duen kokalekuari begira, honako egoera hauek ezartzen dira:

a) Etxebizitzaren eraikinean kokaturik dagoen erabilera, sarbidea duela etxebizitzaren gune erkideetan zehar, are etxebizitzaren barruan.

b) Etxebizitzaren eraikinean kokaturik dagoen erabilera, baina etxebizitzarenaz beste solairu batean, zuzeneko sarbidea duela herri-bidetik, lokabea eta etxebizitzetarako sarbideetik berezia.

c) Erabilera anitzak, etxebizitzarena izan ezik, dituen eraikinean kokatuta dagoen erabilera. Eraikin hori mota horretako eraikinetatik guztiz berezita egon beharko da, gutxienez 8 metro tara. Sarbide erkideak eta eraikinetako gainerako lokaletarako sarbideetatik lokabeak eduki ahalko ditu.

d) Aldean nagusia den erabilerekin bat datozen erabileren multzo bakar batean oso-osorik erabiltzen den eta kaletik edo gune publikotik sarbidea duen eraikin bakartuan garatzen den erabilera.

e) Hiriguneetatik berezitateko dagoen eraikin batean kokaturiko erabilera.

f) Eraikin-euskarria duen edo ez duen erabilera, erabilera hori nagusia deneko alde batean kokatua.

3. Jardueraren ezaugarrien edo izaeraren arabera, honako erabilera hauek:

- 1) Oinarrizko arloko jardueretarako erabilera.
- 2) Komunikazioetarako erabilera.
- 3) Azpiegiturarako erabilera.
- 4) Ekipamenduetarako erabilera.
- 5) Egoitzazko eta etxebizitzarako erabilera.
- 6) Hirugarren mailako arloko erabilera.
- 7) Industri edo ekoizpen jardueretarako erabilera.
- 8) Gune askeetarako erabilera.

Erabilera posible guztiak aurreko kategorietakoren batean sartuta egon behar dira. Beren beregi sartuta ez badago, kategoria horietakoren batekin parekatu behar da, erabilerearen funtsezko ezaugarriak kontutan izanik, eta kategori horren zehaztapenak aplikatuko zaizkio.

6.2.2. artikulua.—*Erabilera Baimendua eta Debekata*

1. Erabilera Baimendua. Erabilera baimenduak dira dagozkien aldean edo azpialdean erregulazioan beren beregi onarturik daudenak.

2. Erabilera Debekata. Erabilera debekatuak dira alde edo eremu bakoitzean beren beregi debekaturik daudenak eta hauekin parekatzen direnak.

Erabilera baimenduen barruan, bi kategoria bereizten dira:

a) Erabilera bereizgarria edo nagusia, erabilera hori baimenduta dauden gainerakoen gainetik nagusia bada eta aldeari izaera ematen badio. Bere intentsitatea Ereduzko Aprobetxamenduan zehazten dena izango da, eta aprobetxamendu horretan oinarrituko dira Planak Banaketa Alde edo Eremu berean baimentzen dituen gainerako erabilera.

TITULO SEXTO
NORMAS REGULADORAS DE LOS USOS

CAPITULO PRIMERO
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 6.1.1.—*Objeto*

Las normas de este título sobre usos urbanísticos tienen por objeto ordenar y controlar el destino del subsuelo, suelo y vuelo de los terrenos, de las instalaciones y edificaciones allí existentes y de las que se puedan implantar o modificar en el futuro, así como de las actividades de todo tipo que en ellas se desarrollen, cualquiera que sea la clase de suelo.

Artículo 6.1.2.—*Aplicación*

1. Además de los preceptos reguladores de los usos, se deberán cumplir las Normas Generales de la Edificación y, en su caso, las Ordenanzas de Zona que correspondan en función de la localización del suelo, edificio o instalación.

2. En los edificios y conjuntos objeto de protección y conservación por el presente Plan, cuya regulación específica se contiene en el título undécimo de estas Normas, prevalece aquélla sobre las determinaciones del presente título.

CAPITULO SEGUNDO
ESTRUCTURACION DE LOS USOS
Y DEFINICIONES

Artículo 6.2.1.—*Estructuración de los usos*

Se establecen las siguientes clases de usos:

1. Según su posibilidad o no de ubicación en el territorio:

- a) Usos permitidos:
— Característico.
— Tolerados.

b) Usos prohibidos.

2. Por la situación de la actividad en relación con su entorno, se establecen las siguientes situaciones:

a) Uso localizado en edificio de vivienda con acceso a través de espacios comunes de éstas, incluso dentro de la vivienda.

b) Uso establecido en edificio de viviendas, pero en planta distinta a la de vivienda, con acceso desde la vía pública directo, independiente y separado del de las viviendas.

c) Uso ubicado en edificio multiuso, salvo el de vivienda y exento totalmente de edificios de este tipo que deberán estar alejados al menos 8 metros de éste. Puede tener accesos comunes e independientes del resto de los locales del edificio.

d) Uso a desarrollar en edificio aislado que esté dedicado en su totalidad a una sola familia de usos que coinciden con el dominante de la zona y que tiene acceso desde la calle o espacio público.

e) Uso emplazado en edificio aislado de los núcleos urbanos.

f) Uso con o sin soporte de edificio alguno, emplazado en zona donde el uso es el predominante.

3. Según las características o naturaleza de la actividad, los siguientes usos:

- 1) Usos de actividades primarias.
- 2) Uso de comunicaciones.
- 3) Uso de infraestructuras.
- 4) Uso de equipamientos.
- 5) Usos residenciales y de vivienda.
- 6) Uso terciario.
- 7) Usos de actividades industriales o productivas.
- 8) Uso de espacios libres.

Todos los usos posibles deben estar comprendidos en alguna de las anteriores categorías. En el caso de que no lo estuviera expresamente, debe asimilarse a alguna de ellas, habida cuenta de sus características fundamentales, y se le aplicarán las determinaciones propias de ésta.

Artículo 6.2.2.—*Uso permitido y prohibido*

1. Uso permitido.—Son usos permitidos los que en la regulación de las respectivas zonas o subzonas están expresamente admitidos.

2. Uso prohibido.—Son usos prohibidos aquellos y sus asimilados que están expresamente prohibidos en cada zona o área.

Dentro de los usos permitidos se distinguen dos categorías:

a) Uso característico, cuando sea el que predomine sobre los demás autorizados y dé carácter a la zona. Su intensidad será la definida por el aprovechamiento tipo y a él estarán referidos el resto de los usos permitidos por el Plan en la misma Área de Reparto.

b) Erabilera toleratuak, beren intentsitate edo dimentsioak kalte egiten ez badiete aldean nagusi diren edo programaturik dauden ezaugarriei. Aldeen arabera xeheaturiko arauetan tamaina edo portzentajearen mugak ezarri ahal izango dira erabilera bereizgarriarekiko.

6.2.3. artikulua.—*Erabilerearen aldaketak*

1. Egon dauden eraikinetan ezarri nahi izan daitezen erabilera-aldaketak ez dira, oro har, baimenduak izango. berariaz debeku da etxebizitzaren kopuruaren gehikuntza.

2. Erabilera eta jarduera berriak egiteko eskabide guztiak, eta baita egon daudenak egokitzeak ere, baimendu egin daitezke baldin eta egin behar diren obra horiek ez badute desjabetzapen balioaren gehikuntzarik eragiten. Beharkizun hori Udalak kasu bakoitzerako egokien joko duen eran formalizatuko da.

3. Baldin eta artikulua honetan aurreikusi diren erabilera eta jardueira aldaketek, eta baita zabalkuntzek ere, aldarazpen nabarmena eragiten badute eraikina ukitzen duen gurpilezkoen trafikoa, Udalak bidezko lizentziaren baimena baldintzatu dezake, luraren taxuketak horretarako aukerarik ematen badu eta aparkalekuak eta trafikoa arautzeko bidezko azalera gaitzea eska dezake.

HIRUGARREN KAPITULUA

ERABILEREN SAILKAPENA BEREN IZAERARI BEGIRA

6.3.1. artikulua.—*Sarrera*

1. Hobeto eta argiago ulertzeko xedez, erabilerak zenbaki ordinala ematen zaiela egituratzen dira (1. erabilera), eta zenbaki horren barruan bereizten dira erabileretako bakoitza egon daitekeeneko kategoria ezberdinak (1. kategoria), eta, horrela izanez gero, bidezko azpikategoriak.

2. Titulu honetan araupetzen diren erabilerearen motek adierazpenezko izaera dute. Erabilerearen batek argi eta garbi sartzerik ez badu beren beregi jasotzen diren horietan, bere ezaugarriei begira antzerakoena den erabilerearen sartuko da, Udalaren Zerbitzu Teknikoak zioak azalduzko txostena eman ondoren.

3. Erabilerearen laburpena

1. Oinarrizko arloko jardueretarako erabilera:

- 1.1. Abelur erabilera.
- 1.2. Erauzketa erabilera.
- 1.3. Basogintza erabilera.

2. Komunikazioetarako erabilera:

- 2.1. Bide Sareko erabilera.
- 2.2. Trenbide erabilera.
- 2.3. Trenbide metropoliarraren erabilera.
- 2.4. Ibaibide erabilera.
- 2.5. Erregaiak hornitzeko hornitegiarako erabilera.
- 2.6. Ibilgailuen geraleku eta Aparkalekuetarako erabilera.

3. Azpiegituretarako erabilera:

- 3.1. Elektraenergiaren Sarea.
- 3.2. Ur-Hornikuntzaren Sarea.
- 3.3. Saneamenduaren Sarea.
- 3.4. Telekomunikazioen Sarea.
- 3.5. Gasaren Sarea.
- 3.6. Hondakin Solidoen Tratamendua.

4. Ekipamenduetarako erabilera:

- 4.1. Administrazio zerbitzuak.
- 4.2. Kirolak.
- 4.3. Irakaskuntza.
- 4.4. Osasuna.
- 4.5. Erlijiozkoa.
- 4.6. Laguntza.
- 4.7. Atsedena, aisialdia eta ikuskizunak.
- 4.8. Gizarte-Kulturazkoa.

5. Egoitzazko erabilera:

- 5.1. Familia bakarreko eta biko etxebizitza bakarra edo adosatua.
- 5.2. Talde-Etxebizitza.
- 5.3. Etxebizitza Erantsia.
- 5.4. Erkidegoko Egoitza.
- 5.5. Hoteletarako.

6. Hirugarren arloko erabilera:

6.1. Bulegoak:

- 6.1.1. Bulegoak etxebizitzarekin batera.
- 6.1.2. Gainerako bulegoak.

6.2. Txikizkako merkataritza:

- 6.2.1. Berezko merkataritza erabilera.
- 6.2.2. Ostalaritzako erabilera.

b) Usos tolerados, cuando su intensidad o dimensión no perturben las características dominantes o programadas en la zona. En las normas pomenorizadas por zonas se establecen limitaciones de tamaño o porcentaje respecto al uso característico.

Artículo 6.2.3.—*Cambios de uso*

1. Los cambios de uso que se pretendan implantar en edificios existentes no serán autorizados con carácter general, quedando prohibido especialmente el incremento del número de viviendas.

2. Todas las solicitudes de implantación de nuevos usos y actividades, así como las adaptaciones o variaciones de los ya existentes, podrán autorizarse siempre y cuando las obras que sea necesario realizar no produzcan incremento en el valor de expropiación. Este requisito deberá estar formalizado de la manera que considere más adecuada el Ayuntamiento para cada caso.

3. En el supuesto en que los cambios de usos y actividades, así como en las ampliaciones previstas en este artículo, supongan una modificación considerable en el tráfico rodado que afecta al edificio, el Ayuntamiento podrá condicionar la oportuna licencia, en el supuesto de que la configuración del terreno lo permita, a la habilitación de las oportunas superficies para aparcamientos y regulación del tráfico.

CAPITULO TERCERO

CLASIFICACION DE LOS USOS SEGUN SU NATURALEZA

Artículo 6.3.1.—*Introducción*

1. Para una mayor comprensión y claridad, los usos se estructuran mediante una numeración ordinal (uso 1), dentro de la cual se distinguen las distintas categorías en que se puede encontrar cada uno de los distintos usos (categoría 1), y, en su caso, las subcategorías correspondientes.

2. Los tipos y clases de usos que se regulan en este título tienen carácter enunciativo. En el caso de que algún uso no sea claramente encuadrable en ninguno de los expresamente recogidos, se incluirá en aquel que más se asemeje, en función de sus características, previo informe razonado de los Servicios Técnicos Municipales.

3. Resumen de los usos:

1. Uso de actividades primarias:

